



Euskadiko Ikasleen Orkestra: Udarako “botikarik onena”

- **EIO-Euskadiko Ikasleen Orkestra** udako kontzertuak prestatzen hasi da buru-belarri
- **Euskadiko Musika Eskola eta Kontserbatorioetako** ikasleek osatzen duten orkestra da EIO; bi proiektu hartzen ditu: **EIO eta EIO Txikia**
- **EIO Txikia** Eibarko egonaldian ari da entseguak egiten **Raffaela Acellaren** zuzendaritzapean; ikasle nagusien orkestrak horixe bera egingo du datorren astean
- **Pandemiak** behartuta **iaz geldialdia** egin ondoren **EIOren** soinua udan entzungo da berriro

“EIO, botikarik onena”. Horrelaxe aurkezten du bere burua Euskadiko Ikasleen Orkestrak, berehalakoan bete beharko duen udako kontzertu-programaren aurrean. Euskadiko Kontserbatorio eta Musika Eskoletako ikasleek osaturiko orkestra da EIO.



Eta ez dute denbora galtzen ibiltzeko astirik. Orkestrako anaia gazteenak, **EIO Txikiak**, hasi ditu dagoeneko kontzertuak prestatzeko entseguak eta egonaldia, eskolan udako oporrak hartu bezain laster. Igandetik, ekainaren 20tik, Eibarko Hezkuntza-esparruko Egoitzan daude egonaldia egiten EIO Txikiko 72 neska-mutilak (9 urtetik 14ra bitartekoak). Bertan entseguak egin ondoren, asteburuan eszenatokietarako jauzia egingo dute Bilbon, Gasteizen eta Donostian. Tchaikovski, Vivaldi, Beethoven eta Sibelius-en lanak joko dituzte, Raffaela Acellaren zuzendaritzapean.

Astebete beranduago, gauza bera egingo dute **EIO-ko nagusienek**. 15 eta 19 urte bitarteko beste 72 musikari gazte hauek ere Eibarren egingo dute egonaldia ekainaren 27tik uztailaren 2ra bitartean, eta hurrengo asteburuan eskainiko dituzte kontzertuak (uztailaren 2, 3 eta 4an). Jon Malaxetxebarria zuzendari dutela, gazte hauen kontzertu egitarauan Tchaikovskiren Biolin Op 35 kontzertua eta Antonin L. Dvoraken 8. Sinfonia ageri dira.



Pandemiak behartuta 2020an etenaldia egin ondoren, aurten bai, posible izango da. Martxoan zehar entzunaldiak egin ondoren, EIOren bi orkestretan parte hartuko duten ikasleak hautatuak daude, eta kontzertuek badute datarik. EIOk bere bi proiektuen bidez egiten duen lan ona auditorioetan entzungo da berriro.

**Euskadiko Ikasleen Orkestra Txikia**Zuzendaria: **Raffaela Acella**

Egonaldia eta entseguak
Ekainak 20-25
Eibarko Hezkuntza-esparruko Egoitza

Kontzertua
Ekainak 25, ostirala
Kontserbatorioa-Bilbao
20:00etan

Kontzertua
Ekainak 26, larunbata
Kontserbatorioa-Gasteiz
19:00etan

Kontzertua
Ekainak 27, igandea
Musikene - Donostia
12:00etan

Euskadiko Ikasleen OrkestraZuzendaria: **Jon Malaxetxebarria**

Egonaldia eta entseguak
Ekainak 27-uztailak 2
Eibarko Hezkuntza-esparruko Egoitza

Kontzertua
Uztailak 2, ostirala
Kontserbatorioa-Bilbao
19:00etan

Kontzertua
Uztailak 3, larunbata
Kontserbatorioa-Gasteiz
19:00etan

Kontzertua
Uztailak 4, igandea
Musikene - Donostia
12:00etan

EIO, Euskadiko Ikasleen Orkestra

Euskadiko Ikasleen Orkestra (EIO) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bultzatzen duen hezkuntza-proiektu musikala da. Hainbat espezialitatetan musika ikasketak burutzen ari diren ikasleen topagune bihurtzen da EIO, elkarrekin orkestra bat osatuz. Etorkizuneko euskal musikarien trebakuntza musikalean bidelagun izan nahi duen ekimen honek, musika jendaurrean eta orkestra bateko kide gisa jo dezaten plaza eskaintzen die ikasle gazteei. EIOren helburu nagusia musika kontserbatorioetako eta eskoletako ikasleei heziketa sinfonikoa eta orkestra-heziketa eskaintzea da. Alde batetik, ikasleen motibazioa piztu nahi du EIOk, musika ikasketetan jarrai dezaten; eta



bestetik, kontserbatorioetan ikasleek landu ezin izango luketen erreperitorio sinfoniko zabala jotzeko aukera eman.

Euskadiko musika irakaskuntza zentroetan ikasten ari diren neska-mutilek osatzen dute, eta adinaren arabera, proiektuak bi orkestra desberdin ditu:

- **EIO:** 15 urtetik 19ra bitarteko ikasleek osatzen dute.
- **EIO Txikia:** 9 urtetik 14ra bitarteko ikaslez osatua.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko ekainaren 22an